



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

Oharra BREXITA NEGOZIATZEKO 7. ERRONDA

Noiz: 2018ko otsailaren 6tik 10erra arteko astean

EMAITZA NAGUSIAK

Pasa den abenduaren 15ean, Erresuma Batuko eta EBko negoziazio taldeek aurrerapauso nahiko eman zirela hurrengo fasearekin hasteko adostu zuten. Hortaz honako negoziazio saioa da bigarren fasean ematen den lehena.

Otsaileko errondan sakondu gabe geraturiko gaiak aztertzeaz gain, trantsizioari buruz hitz egiten zen lehen aldia izan zen ere. Epe hau 2019ko martxoaren 29an hasiko da Erresuma Batuko erretiratze ofizialarekin batera.

Bestetik, azaroko seigarren errondan bizi izandako antzeko egoera eman zen berriz, ez baitzen adostasunik lortu, ezta akordio batera ailegatu ere sakontzeke utzitako gaietan. Irlandako kasuan, muga zorrotzik jarriko ez den konpromisoa hartu arren, saihestuko duen konponbide praktikorik ez zen erabaki.

Trantsizio-epean hiritarren eskubideen inguruan desadostasunak izan ziren nagusi. Erresuma Batuak pertsonen zirkulazioa begi onez ikusten du trantsizioan, baina hiritarren eskubideen inguruan epe zorrotzagoa jartzen du, erretiratzearen aurretik ailegaturiko pertsoneri mugatuz.

Gobernantzari dagokionez, EBk uste du erretiratze akordioak inplementazio mekanismo eraginkorrak aurreikusi behar dituela, baita europar legedia aipatzen den bakoitzean Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari rol bat eman behar zaiola ere.

Erresuma Batuaren jarrerak asmo handiagoak dituela erakusten du. Aurka egiteko eskubidea eskatu egin du trantsizio epean indarrean jartzen diren arau berrien gainean. Era berean, trantsizioan opt-ins politiketan parte hartzen jarraitu nahi duela adierazi du.

Etorkizuneko harreman komertzialari dagokionez, Bruselako negoziatzailea den Michel Barnierrek Londres bere posizioa zein den argitu behar duela adierazi du: "Europar Batasuna, bere instituzioak eta politikak usteak ondorioak badituela bere gain hartu behar du".